PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

ZINEGOTZIAK
Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

BERTARATU EZ DIRENAK:
Iratxe Parro

IDAZKARIA
Naiara Lazpita

AIARAKO UDALAK 2017ko MARTXOAREN 23an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko otsailaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen, eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetza-hitzarmena, oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko, oinarrizko gizarte-zerbitzuen administrari laguntzaile lanpostua finantzatuz.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du Aldundiarekin harremanetan jarri direla, eta jakinarazi zutela hitzarmena eta Foru Institutuak ematen duen diru-laguntza (iazko abendutik ematen du) indarrean daudela. Baina Kuadrillarekin sinatu zen hitzarmena soilik 2016rako zenez, 2017koa onetsi behar da.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2016ko azaroaren 17an Udalbatza Osoak erabaki zuela onartzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren, eta Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen arteko lankidetza-hitzarmena aldatzea, gizarte-zerbitzuak emateko. Hori dela eta, hitzarmen horretan gizarte-langileari laguntza administratiboa emateko pertsona bat sartu zen, jardunaldi erdian lan egingo zuena, Udal horietako oinarrizko gizarte zerbitzuak indartzeko. Zerbitzu horiek 2016ko abenduaren 1ean sartu ziren indarrean, eta indarrean daude orain ere.

IKUSI DA.- Gaur egun Aiara, Artziniega eta Okondoko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langileari laguntza administratiboa ematen dion pertsona Aiarako Kuadrillak jardunaldi erdian duela kontratatuta eta hori ez da nahikoa zerbitzu horren behar guztiak betetzeko. Hortaz, Arabako Foru Aldundiak diru-laguntza handiagoa eman behar duenez, Aiarako Kuadrillak Aiara, Artziniega eta Okondoko Udalen, eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetza-hitzarmenaren zirriborro bat onetsi zuen, 2017rako oinarrizko gizarte-zerbitzuetako administrari laguntzailearen zerbitzua handitzeko.

IKUSI DA.- Hitzarmen horretan jasotzen dela zerbitzuaren areagotze hori Arabako Foru Aldundiak emandako diru-laguntzaren kargura finantzatuko dela (lanaldi erdiko kontratazioaren kostuaren % 80), eta gainontzekoa (% 20) Udal bakoitzeko udal-aurrekontuen kargura.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako, Artziniega eta Okondoko eta Aiarako Kuadrillaren arteko lankidetza-hitzarmena, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako administrari laguntzailearen zerbitzua handitzeko, eta hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Hitzarmena indarrean egongo da 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Hirugarrena.- Alkateari eskumena ematea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatu ahal izan ditzan.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Aiarako Eskualdeari, jakitun egon dadin eta gainerako ondorioetarako.

3.- EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioa: “Guernica” Gernikara.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez duela alde handirik ikusten Bilduren mozioaren eta bere taldeak aurkeztutako zuzenketaren artean; hortaz, Bilduk aurkeztutako mozioa babestuko dute.

Nerea andreak (BILDU) esan du mozioak aldarrikapen historiko bat proposatzen duela; hau da, Picassoren “El Guernica” koadroa Gernikara itzultzea. Izan ere, gaur egun, Madriden dago. Eta eskatzen dena da Euskal Herrira ekartzea, zehazki aipatutako udalerri horretara.

Gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 9 (5 PNV - 4 BILDU)
Abstentzioak: 1 AB

Horrenbestez, mozioa onetsi da. Akta honen **I. ERANSKIN** gisa agertzen da.

4.- EAJ-PNV taldeak EH BILDU taldearen mozioari egindako zuzenketa, “Guernica” Gernikari buruzkoa.

Puntu hau eguneko aztergaien zerrendatik kentzea erabaki da, eztabaidatu ondoren eta aurreko puntua bozkatu ondoren.

5.- 1/2017 kredituak judizioz kanpo aintzatestea

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Judizioz kanpo kredituak aitortzeko 1/17 espedientea.

IKUSI DA.- Idazkari-kontu hartzaileak 2017ko martxoaren 9an eginiko txostena**.**

AINTZAT HARTU DA.- Euskara eta Kultura, Kirola, Hezkuntza eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko martxoaren 14an eginiko aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Ogasunen Lege Arautzailearen Testu Bategineko 176. artikulua eta 500/1990 Errege Dekretuko 16. artikulua (Toki Ogasunaka arautzen dituena).

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea judizioz kanpoko kredituak aitortzen dituen 1/2017 espedientea, jarraian zerrendatzen diren gastuen arabera:

- 000733 faktura, Euskaltzaleen Topagunearena, 2014ko azaroaren 30ekoa; kontzeptua: "Kultur Errotako Emanaldia (2014/11/21) Lakrikun Antzerki taldea.". Zenbatekoa: 1.089 euro, BEZa barne.

Bigarrena.- Aipatutako kredituen aitortza 2017 ekitaldiko aurrekontuari egoztea, 335.227.006 aurrekontu-aplikazioari (Euskara sustatzea), hain zuzen.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Etxeguren Zerbitzuak, SL enpresa hautatzea "Aiarako argiteria publikoa kontserbatzek eta mantentzeko" zerbitzuaren esleipendun gisa.

Iraida andreak (AB) aipatu du bere taldeak kontratuaren kontrol zehatz bat egitea nahiko lukeela; izan ere, aurretik arazoak egon dira zerbitzu horrekin eta zerbitzu hori emateko moduarekin.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio arrazoi horregatik egindako esku-hartzeen txosten bat eskatuko dela.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2016ko azaroaren 10eko 452/16 Alkatetza Dekretuaren bitartez onetsi egin zirela administrazio-baldintza partikularren eta baldintza tekniko partikularren pleguak, prozedura irekiaren bitartez eta hainbat esleipen irizpiderekin Aiarako argiteria publikoa kontserbatu eta mantentzeko zerbitzua eskaintzeko eskaintza ekonomiko onuratsuena kontratatzeko.

IKUSI DA.- Lizitazio-aldian sei eskaintza aurkeztu zirela. Horrela jaso da dagokion espedientean.

IKUSI DA.- Abenduaren 19an kontratazio mahaia eratu zela. B gutun-azala ireki

ondoren, ELECTRIFICACIONES RADIMER, SL enpresak egindako eskaintza neurrigabea zela ziurtatu zen, eta kanpoan uztea erabaki zen eskaintza baxuegia eta neurrigabea aurkezteagatik. Gainera, emandako entzunaldirako epean ez zuen justifikatu kontratua eskainitako prezioan bete ahal izango zuenik.

IKUSI DA.- Enpresa hori kanpoan utzi ondoren, kontratazio-mahaiak berriz alderatu zituela aurkeztutako eskaintzak. Ikusi zuten ETXEGUREN ZERBITZUAK, SL enpresak eskaintza neurrigabea edo baxuegia aurkeztu zuela. Hortaz, 2017ko urtarrilaren 16an eskatu zitzaion aurkeztu zezala zerbitzua eskainitako prezio horretan emateko gai zela ziurtatzen zuen agiria.

IKUSI DA.- Udalak ESETEK SMART ENERGY enpresari eskatu zion ETXEGUREN ZERBITZUAK, SL enpresak aurkeztutako ziurtagiriaren txosten teknikoa egiteko; izan ere, ez du horretarako langile teknikorik edo aditurik, kontratazio-mahaiari aholkua emateko.

IKUSI DA.- ETXEGUREN ZERBITZUAK, SL enpresak aurkeztutako agiri guztiak aztertu ondoren, ESETEK SMART ENERGY enpresak 2017ko otsailaren 16an txosten bat idatzi zuela. Horren bidez, ondorioztatzen da ETXEGUREN ZERBITZUAK, SL enpresak aurkeztutako ziurtagiriarekin argitzen dela zerbitzu hori betetzeko gai dela eskainitako prezioan.

IKUSI DA.- B eta C gutun-azalak eta puntuazioak aztertu ondoren balorazioaren emaitza honako hau dela:

ENPRESA	B GUTUN-AZALAREN PUNTUAZIOA	C GUTUN-AZALAREN PUNTUAZIOA	PUNTUAK GUZTIRA
ETXEGUREN	58,24	29	87,24
TECOEL	45,65	27	72,65
EKOARGI	46,22	25	71,22
INELCO	38,64	24	62,64
TECUNI	46,68	40	86,68

AINTZAT HARTU DA.- Esleipen-irizpideetan puntu gehien lortu duen enpresa ETXEGUREN ZERBITSUAK, SL enpresa izan dela.

AINTZAT HARTU DA.- Azaroaren 16ko 38/2011 LEDaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratuan xedatutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- ELECTRIFICACIONES RADIMER, SL enpresa lizitazio honetatik kanpo uztea, eskaintza baxuegia eta neurrigabea aurkezteagatik eta entzunaldirako epean kontratua eskainitako prezioan betetzeko gai dela ez ziurtatzeagatik.

Bigarrena.- "Aiarako argiteria publikoa kontserbatzeko eta mantentzeko" zerbitzuaren kontratista gisa hautatzea ETXEGUREN ZERBITSUAK, SL enpresa, eskaintzarik onuratsuena aurkeztu duelako, pleguan zehaztutako esleipen-irizpideekin bat etorriz.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea ELECTRIFICACIONES RADIMER, SL enpresari.

Laugarrena.- Hautatutako enpresari erabaki honen berri ematea, eta eskatzea pleguen IX.2 artikuluan eskatzen diren dokumentuak aurkeztu ditzala hamar laneguneko epean, erabakia jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. (Agirien lehen eta bigarren blokea)

Bosgarrena.- Dokumentazio guztia jaso eta positiboki kalifikatu ondoren, alkateak Udalbatza honen eskuduntzaz kontratua esleituko du, jaso den egunetik bost laneguneko epean.

7.- Honako hauen berri ematea: udal-zenbaketen aktak, gastuen eta sarreren balantzea, libreten egoera eta 2016ko abenduko eta 2017ko urtarrileko eta otsaileko kredituen aldaketak.

Udalbatza jakitun geratu da.

8º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **67/17 erref.- S.G.G.-** Agiri gehiago eskatzea, Sojon etxebizitza bat lehen aldiz erabiltzeko lizentziaren espedienteari buruz.
- **68/17 erref.- M.L.A.E.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuazako etxebizitza bateko sarbidean hesi elektriko bat jartzeko.
- **69/17 erref.- Alkatearen 1/2017 kreditu-transferentziari dagokion espedientea.**
- **70/17 erref.- Construcciones Izoria 2000, SA.-** Etxaurren Ikastola aldatzeko obrarako kontratuaren esleipena.
- **71/17 erref.-** Arabako Foru Aldundiari 2017an Euskaraekin loturako jarduerak antolatzeko diru-laguntza eskatzea.
- **72/17 erref.- M.P.O.O.-** ICIOn gehiago ordaindutako zenbatekoa itzultzea.- **73/17 erref.- Onestea 2016ko 4. hiruhilekoko Uraren eta Estolderiaren Tasaren Erroldak.**
- **74/17 erref.- M.C.A.S.-** Banaketa horizontalaren udal-lizentzia ematea, Zuazako etxebizitza baterako.
- **75/17 erref.- D.A.A.-** Dokumentazio gehiago eskatzea, finkak banantzeko lizentziaren espedientea dela eta.
- **76/17 erref.- HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEA**.- 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.
- **77/16 Arespalditzako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako eraikin batean segurtasun-sarea duen plastiko bat jartzeko.
- **78/16 erref.- A.Z.O.- 2015eko eta 2016ko TMZren ordainagiriak itzultzea.**
- **79/16.- ME.E.V.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- **80/17 erref.- J.B.Y.-** Jarduera-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.

- **81/17 erref.- O.S.M-** Lizentzia-eskaerari buruzko dokumentazio gehiago aurkez dezala eskatzea.
- **82/17 erref.- J.J.A.S.-** Administrazio espediente bat jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **83/17 erref.- G.O.T.-** Administrazio espediente bat jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **84/17.- A.R.H.-** Onestea jarritako errekurtsoa, 2016ko deialdian Euskara ikastaroa antolatzeko diru-laguntzari buruzkoa.
- **85/16 erref.- I.P.S.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izoriako etxebizitza bateko komuna zaharberritzeko.
- **86/17 erref.- P.M.P.A-** Luiaondoko etxebizitza batean leihoak aldatzeko obrarako lizentziaren inguruko dokumentazioa zabaltzeko eskatu zaio.
- **87/17 erref.- Murgako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murgako frontoia egokitzeko.
- **88/17 erref.- J.E.R.-** Administrazio-espediente bat jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **89/17 erref.- U.E.O.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuatzan dagoen etxebizitza bateko fatxadak konpontzeko.
- **90/17 erref.- J.G.R.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondoko lokal bateko hormetan beirazko panelak jartzeko.
- **91/17 erref.-** Llantenoko Administrazio Batzarra.- Obrarako udal-lizentzia ematea, La Blancako (Llanteno) etxola bateko barrualdea zarpiatzeko.
- **92/17 erref.- Llantenoko Administrazio Batza.-** Llantenoko bide bat konpontzeko obrarako lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatu zaio.
- **93/17 erref.- G.R.Z.-** Agiri gehiago eskatu zaizkio, Salmantoneko eraikin bateko teilatua aldatzeko eta egitura berritzeko obrarako lizentziaren espedientea dela eta.
- **94/17 erref.- A.G.Z.-** Obrako udal-lizentzia ez ematea, Beotegiko eraikin bat handitzeko.
- **95/17 erref.-** Onestea F/2017/2 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **96/17 erref.- A.M.C.-** Agiri gehiago eskatzea, Arespalditzan lurrak betetzeko sailkatutako jardueraren aldez aurreko komunikazio-espedientea dela eta.
- **97/17 erref.- J.O.O.-** Agiri gehiago eskatzea, Arespalditzako etxebizitza bateko aurrealdea konpontzeko obrarako lizentziaren espedientea dela eta.
- **98/17 erref.-Leziaga 1995 Construcciones, SL.-** Obren 3. ziurtagiria onestea, Luiaondoko botikina jarriko den etxola birgaitzeko obrei buruzkoa.
- **99/17 erref.- M.J.O.M.-** Obrak amaitzeko epea luzatzea.
- **100/17 erref.- ANTONIO BLANCO E HIJOS, SL.-** Baimena ematea Etxaurren Ikastolan "Eskola kirola" kanpainaren eskola-garraioa zerbitzua emateko.
- **101/17 erref.- Zorroza Gestión, SL.-** 6/17 Dekretuaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsoa baztertzea, eta bertan zehazten dena eskatzea.
- **102/17 erref.-** Onestea espedientea abiaraztea eta ekonomia eta administrazio-pleguak, eta plegu teknikoak, "Aiarako Jolas Txokoak" udalekuen kudeaketa zerbitzua esleitzeko.
- **103/17 erref.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Agiri gehiago eskatzea, hondakinak kudeatzeko jarritako bermea itzultzeko espedientari buruz.
- **104/17 erref.-** Onestea 2017 ekitaldiko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda.

- Esteban jaunak (BILDU) 67/17 Dekretuaz galdetu du.

Idazkariak erantzun dio dekretu horren bitartez eskatzaileari eskatzen zaiola agiri gehiago aurkeztu ditzan, lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emateko eta bermea itzultzeko, udal teknikariaren txostena oinarri hartuta.

- Esteban jaunak 70/17 Dekretuaz galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Ikastolan egin beharreko obrak direla, sortu diren akats batzuk konpontzeko; horren guztiaren berri badu bere taldeak.

- Esteban jaunak 94/17 Dekretuagatik galdetu du.

Idazkariak azaldu du, udaleko teknikariaren txostenaren arabera, obrarako lizentzia ez zaiola eman; izan ere, proposatutakoak ez du betetzen bideen arteko tarteari buruzko araudian zehazten dena.

9º.- Galderak eta eskeak.

- Iraida andreak (AB) aipatu du aurreko bilkura eskatu zela Aiarak Ur Partzuergoan duen ordezkagarritasunari buruzko hausnarketa egitea; eta batzorderik egin ez denaz gaia lantzeko, berriz gauza bera eskatu nahi du.

  Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Aiarak Ur Partzuergoan duen ordezkagarritasuna estatutuetan jasota dagoela. Partzuergoak estatutuak aldatzeko prozesu bat abiarazi du, legegintzaldi berrira egokitze aldera, baina oraindik ez dira heldu ordezkagarritasunera.

  Iraida andreak gehitu du ideia ona izango litzatekela Ur Partzuergoan eztabaidatu aurretik Udalak adostutako jarrera bat edukitzea.

- Josu jaunak (BILD) azaldu du, Luiaondoko Barrena kaleari buruzko hitzarmenari dagokionez, Bildu taldea ados dagoela, aintzat hartuta erabakiaren motorra izan zela. Dena den, ez daude ados tramiteak egiteko erabili den moduarekin. Izan ere, informazio-batzorde batean aurkeztu zen, teknikariek azalpen tekniko edo juridikorik eman gabe, eta bilkuran aurkeztu zen, oneste aldera. Ondoren, bilera bat antolatu zen eta Gerardo bertaratu zen; bilera horretan esan zen datuak falta zirela; izan ere, teknikariak aipatu zuen egun horretan Arabako Foru Aldundiko Errepideak Sailarekin bilera bat eduki zuela. Josu jaunak jarraitu du eta esan du bere taldeak uste duela hori ez dela modurik egokiena teknikoki konplexua den hitzarmen bat onesteko; izan ere, Udalbatzan aurkeztu zen bere taldeak teknikarien azalpenik jaso gabe.

  Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Bilduren hasierako ideia zela toki horretan baratze ekologikoak jartzea.
  Gerardok Errepideak Sailarekin izandako bilerari dagokionez, aipatu du Plan Orokorrari buruzko kontuak lantzeko izan zela, ez Barrena kaleko hitzarmenari buruzko gauzak eztabaidatzeko.

  Josu jaunak (BILDU), berriz, esan du hitzarmena onesteko aurkeztu zela, eta, bost egun geroago egin zela bilera hori. Argi utzi nahi du guztiek ez zutela informazio eta azalpen tekniko bera hitzarmena onesteko aurkeztu zenean, eta haien ustez, hori ez da jarduteko modurik egokiena.

Lauren jaunak (BILDU) gaineratu du Josuk esan nahi duela erabakia hartu zela talde guztiek azalpen juridiko eta teknikoak eduki gabe. Esaten duen gauza bakarra da erabakiak hartzeko beharrezko azalpenak eman behar direla. Bestalde, Lauren jaunak jarraitu du, eta esan du ez duela inork ezer beretzat hartu; Bildu gobernu-taldera iritsi zenean inguruagatik arduratu zen, baldintza txarretan zegoelako, eta baratze ekologikoen ideia behin-behineko neurri gisa proposatu zuen, ingurunea kontserbatu eta mantentzeko; ez zen behin betiko konponbide bat, eta bizilagunen bileran atera zen.

Gentza jaunak erantzun zuen hitzarmena informazio-batzordera eraman zela eta ez zuela inork azalpenik eskatu, ezta bilerarik ere. Batzordean landu zenetik, bilkuran ere eskatu ahal izan zen informazioa edo beste bilera bat bilkuran onetsi aurretik.

Nerea andreak (BILDU) aipatu du oposizioak dokumentu asko jasotzen dituela batzordeetarako, eta gauza batzuk, hitzarmen hau barne, oso teknikoak direla eta askotan zalantzak ez direla hasieran sortzen, ondoren baizik. Aldea da gobernu taldeak gaiei buruzko informazio gehiago duela, denbora gehiago duelako lantzeko.

Josu jaunak (BILDU) gaineratu du bere taldeak eskatzen duela batzordeetan dagokion teknikariak joan dadila, azalpenak eman ditzaten, bereziki gaiak konplexuak direnean.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) azaldu du batzordean ez zela eskatu.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du hitzarmena landu zen informazio-batzordean Bilduk esan zuela bere jarrera bilkuran azalduko zuela; eta azalpenik eskatu ez zenez, zalantzarik ez zegoela ulertu genuen. Hori dela eta, eskatzen du talderen batek zalantzak dituenean edo azalpenak nahi dituenean, bilkuraren aurretik eskatzeko.

Nerea andreak (BILDU) esan du batzuetan zalantzak batzordearen ondoren sortzen direla, batzordeetan dokumentu guztiak ez dituztelako.

- Lauren jaunak (BILDU) azaldu du zalantzaren bat duela aurrekontuaren eta likidazioaren zirriborroaren gainean.

  Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du idazkariak argituko dituela likidazioari buruzko zalantzak, eta aurrekontuari buruzkoak berak edo idazkariak argitu ditzake.

- Josu jaunak (BILDU) Kuadrillako artxibozainaren lan-egoerari buruz galdetu du.

  Gentza jaunak erantzun du berak oraindik ez dakiela ezer.

- Josuk esan du batzordean eskatu zela Ur Partzuergoan egin behar den saneamendu-sareen diagnostikoa egiteko sortu den lantaldean dagoen ordezkaritza berrikusi zedila.

  Gentza jaunak azaldu du gaia aztertuko dela eta batzordean aurkeztuko dela.

- Josu jaunak (BILDU) azaldu du martxoaren 1ean eskaera bat egin zuela obraren eta jardueraren lizentzien egoera ezagutze aldera eta oraindik ez duela erantzunik jaso.

  Gentza jaunak erantzun du hurrengo astean emango dela eskatutako informazioa.

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut, eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita hiruan.

OE

ALKATE-UDALBURUA, IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta. Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.

— I. ERANSKINA —

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala
Sarrera data 21 FEB 2017 Fecha
Entrada 648

"GUERNICA" GERNIKARA

MOZIOA

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak "Guernica" margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: "Guernica" margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zanpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzera eraman zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, "Guernica" bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude "Guernica" Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean "Guernica"-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu .....AIARA.....ko Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren "Guernica" margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, "Guernica" Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3,- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernua eta Kultura Ministeritzari.

Euskal Herrian, 2017ko otsailean
EUSKAL HERRIA BILDU